

Nafarroako Lurralde Estrategian euskara-ikuspegia txertatzeko proposamena

1.- SARRERA

2021eko abenduan hasi ziren Nafarroako Lurralde Estrategia (aurrerantzean NLE) garatzeko proiektua diseinatzen eta, 2022ko apirilean, Lurralde Estrategiarako proposamenaren lehen zirriborroa argitaratu da. Idazki honetan Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) eta bere kide diren Nafarroako Udalen izenean Lurralde Estrategian euskara eta udalerrri euskaldunen izaera aintzat hartzeko proposamena landu nahi izan da.

2.- AURREKARIAK

Nafarroan 2005ean onartutako Lurralde estrategiaren dokumentuan jaso zen Europako Erregioen Garapenerako politikarekin bat egiten duten hiru printzipioetako bat ondare kulturala zaintzea zela.

Lurraldearen antolaketari lotuta, arlo soziolinguistiko eta urbanistiko hori aztertzeko, gizarteratzeko eta konponbideak bilatzen saiatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA), Kontseiluak, UEMAK eta UEUK (UPV/EHUren babesarekin) “Lurraldea eta Hizkuntza” lehen jardunaldia antolatu zuten 2014ko urtarrilean¹. Bertan, lurralde-antolakuntzako eta hirigintzako plan eta proiektuen eragin linguistikoa ebaluatzeko beharra azaldu eta aldarrikatu zen. Ondotik, beste bost jardunaldi etorri dira². Jardunaldi horietan, besteak beste, lurralde-antolaketa eta hirigintzari lotutako proiektuek izan dezaketen hizkuntza-inpaktua aztertzeko UEMAK eta GFAk landutako Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE) izeneko tresna aurkeztu zen (ordutik aplikazio handia izan duena, besteak beste Baztango Aroztegiaren proiektuan ere ebaluatu zen) eta udalerrri euskaldunen garapen jasangarrirako erronkak zein jarraibideak proposatu ziren.

Bide horretan mugarrria izan zen, 2016ko apirilean ELE aplikatzeko beharra jaso izana EAEko 2/2016 Udal Lege berrian: 7.7 artikulua lurralde-antolakuntzako eta hirigintzako plan eta proiektuen eragin linguistikoa ebaluatzeko derrigortasuna ezarri du, baita horien ondoriozko kalte soziolinguistikoak txikitzeko neurri zuzentzaileen ezarpena eskatu ere:

¹ Hitzaldi guztiak, hemen: <http://www.ueu.eus/ikasi/jardunaldi-ikastaroa/628> (kontsulta: 2016/6/28).

² Jardunaldietako hitzaldiak ondorengo loturetan ikusgai: <http://www.ueu.eus/ikasi/jardunaldi-ikastaroa/751>
<http://www.ueu.eus/ikasi/jardunaldi-ikastaroa/895>
<http://www.ueu.eus/ikasi/jardunaldi-ikastaroa/1244/Lurraldea%20Beta%20Hizkuntza.%20Aarnasguneen%20prebentziotik%20Bgarapenera.%20BIV.%20BJardunaldiak>
<http://www.ueu.eus/ikasi/jardunaldi-ikastaroa/1519/Lurraldea%20Beta%20Hizkuntza.%20Aarnasguneen%20Bgarapen%20Bjasangarrirantz.%20BV.%20BJardunaldiak>

Udalen egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.

Bide beretik, EAEn landu ziren eta 128/2019 Dekretuaren bidez onartu ziren Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan hizkuntza-perspektiba lehen aldiz txertatu zen izaera horretarako dokumentu batean. Gidalerroen eztabaida prozesuan UEUK, Kontseiluak eta UEMAK ekarpen bateratua aurkeztu genien aipatutako gidalerroei. Hain zuzen ere, ekarpen horren oinarria erreferentzia gisa hartu dugu NLEn jarraian aurkeztutako ekarpenak osatzeko.

3.- HIZKUNTZA-PERSPEKTIBA NLEak BERRITZEKO OINARRIZKO DOKUMENTUAN

2022ko Nafarroako lurralde estratergiarako dokumentuak ez du inongo unetan hizkuntza-perspektiba aipatu ere egiten. Nabarmen deigarria suertatu zaigu erreferentziatzko dokumentuen aipamena egiterakoan *Hurbileko lurraldeekin artikulazioa* atalean EAeko Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan metabolismoarekin lotutako gaiak aipatutako, euskara aipatu ez izana. Izan ere, dokumentu honetan jaso den bezala, osasuna eta generoaz gain, LAGean euskara ere aipatzen baita zeharkako gaien artean.

Izaera honetako dokumentu batek, Nafarroako lurraldearen antolaketan eta honen garapen estratergietan izango duen eragina aintzat hartuta, eta beraz, modu berean, Nafarroako hizkuntzen galera edo berreskurapen prozesuetan izan dezakeen eragina aintzat hartuta, ezinbestean, hizkuntza-perspektiba aintzat hartu beharko lukeela uste dugu. Jarraian, aipatutako dokumentuan hizkuntza-perspektika eta zehatzago euskararen-perspektiba jaso dadin arazoibideak aurkeztuko dira. Bai eta horien araberrako zenbait proposamen zehatz ere.

Nafarroako hizkuntza errealitate berezia: zonifikazioa

Kontuan hartu behar da Nafarroako hizkuntza-errealitatea berezia dela, Europan (eta munduan, esan genezake) parekorik gabea. Bertako oinarritzko legedian (18/1986 Foru Legea, abenduaren 15ekoa, Euskarari Buruzkoa) jasotzen den bezala, gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira eta, horren ondorioz, herritar guztiek dute hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea. Aldiz, bi hizkuntzen egoera ez da berdina. Urteetako ordezkapen prozesuaren ondorioz, euskara gutxitutako egoeran dago eta erdara da nagusi eremu geografiko eta funtzional gehienetan. Gainera, euskararen ofizialtasuna ez da Nafarroako lurralde osora hedatu eta horrek eskubide horien (hizkuntza horiek jakiteko eta erabiltzeko eskubidea) aitortzan nolabaiteko zonifikazioa ezartzen du Nafarroako lurraldean. Horrela, herritarrei, Nafarroako herri batetik bestera igaro ahala, eskubide batzuen aitortza murrizten zaie.

Bistan denez, lurralde antolaketari eta garapen estratergiei estuki lotzen zaizkie kontu hauek, izan ere, NLEko printzipioetan jasotzen den bezala, ekitatea eta gizarte-egituraketa izan beharko

litzateke proposamen honen printzipioetako bat eta erronka gisa hartu beharko litzateke eskualdeen arteko eta eskualde barruko lurralde-oreka. Bide beretik, lurraldearen gaikako strategiaren ataleko *Ekonomia eta gizartea* gaiari lotutako 12. Jarraibidean jasotzen den bezala, “Erregio Politika Integrala garatu beharko litzateke... Nafarroako osoaren gizarte eta lurralde kohesiorako esparru orokorraren baitan”. Bistan denez, nekez gara daiteke gizarte-integrazio eta kohesio-sozial hori modu egokian Nafarroako herri batetik bestera igarotakoan halako lege-bereizkeriak gertatzen diren bitartean.

Paisaia: hizkuntza paisaia ere bada.

Dokumentuan, paisaiaren definizio interesgarria jaso da:

Paisaia kontzeptu konplexua da, esanahi askokoa, eta garapen iraunkorraren dimentsioak biltzen ditu, hau da, dimentsio naturala, kulturala, soziala eta ekonomikoa. Gure bizi-ingurunea da, eta gizakiaren ekintzaren adierazpen formala bere historian zehar. Horregatik, edozein paisaia denbora-eskala desberdinetan jarduten duten eta termino sistemikoetan portaera-konbergentzia sortzen duten dinamiken emaitza da. Laburbilduz, paisaia sistema sozioekologiko gisa interpreta daiteke

Paisaia, beraz, lurraldeaz (landaz, hiriaz, aldiriaz...) dugun pertzepzioarekin lotzen da. Pertzepzioa bisuala da bereziki, baina ez bakarrik. Hautemate subjektibo baten emaitza den heinean, paisaia usaimenaren eta entzumenaren bidez ere osatu daiteke. Atzerrira bidaiatzen dugunean, esaterako, bertako ondare natural eta arkitektoniko bereziaz disfrutatzeaz gain, hango hizkuntzaren musikaltasuna ere gozaten dugu, tokiko nortasunaren eta identitatearen parte garrantzitsua delakoan. Hizkuntza ere paisaiaren zatitzat jo daiteke, hortaz. Eta, euskara, horrenbestez, Nafarroako paisaiaren zati.

Paisaia ez denez argazki finko baten emaitza, ordea, hura babestu, antolatu eta kudeatu beharra dago. Eta nekez eutsiko diogu euskarak eratutako entzumenezko paisaiari haren hitzunen habitata modu iraunkorrean babestu eta sustatu gabe.

Horrenbestez, NLE dokumentuan, gaikako strategiak lantzen diren atalean, *Ingurumena, paisaia eta lurraldeko aktiboak* gaiaren baitan, paisaia aipatzen denez, hizkuntza-paisaiari lotutako strategiak ere landu beharko lirateke.

Kultura ondarea: hizkuntza, kultura-ondarearen parte.

2015eko proposamenaren bide beretik NLEren proposamen berri honetan kultura eta kultur ondarea aipatzen dira. Zehazki oinarrizko helburuen artean laugarrenak honela dio:

- Nafarroa martxan den aldaketa anitzeko prestatzea: aldaketa ekologikoa, energetikoa, klimatikoa eta kulturala.

Horri lotuta, berrikuntza izan zen 2003an UNESCOren Ondare Inmaterialaren Konbentzioan azaldutako ideia ere. Bertan, 2. artikuluan zehaztu bezala³, ondare immateriala babesteko kategorien artean lehena litzateke kulturaren ahozko tradizioek eta adierazpideek osatutakoa, “hizkuntza barne”.

Horrez gain, Espainiako Estatu mailako 10/2015 Kultur Ondare Immaterialaren Babeserako Legea ere Nafarroan jadanik aplikatzekoa da. Haren 2. artikuluan dagoeneko «ahozko tradizio eta adierazpideak, hizkuntz modalitateak eta berezitasunak barne» kultur ondare immaterialaren zatitzat jotzen dira. Eta, zehazkiago, 4. artikuluan, ondasun immaterialei loturiko espazio fisikoen balizko babesa hirigintzaren eta lurralde-antolakuntzaren alorretan espresuki kokatzen da:

1. Babestu beharreko ondasun immaterialei loturiko leku, espazio, ibilbide eta euskarriak errespetatu eta kontserba daitezzen begiratuko dute administrazio publikoek.

Horretarako, kultur ondare immateriala babesteko neurrien artean ondare horrekin lotura estu-estua duten ondasun higigarri eta higiezinak babesteko neurri berezi eta espezifikoak sartu ahal izango dira, baldin eta babes horrek ez badu eragozten ondasun horien iraunkortasuna, eboluzioa eta erabilera ohikoa, eta hargatik galarazi gabe Espainiako Ondare Historikoari buruzko 16/1985 Legean eta autonomia-erkidegoetako legedian ondasun higigarri eta higiezin horiek babesteko ezartzen diren neurri bereziak.

2. Kultur adierazpide immaterialak gauzatzearekin loturiko ondasun higigarriek eta espazioek kasuan kasuko administrazio eskudunen babes-neurriak jaso ahalko dituzte, hirigintzaren eta lurralde-antolamenduaren alorreko legediaren arabera.

Babes-neurri horiek ez dituzte inoiz murriztuko ondasun horien gainean eskubideen jabeek edo titularrek dituzten ahalak. Murrizketa horiek gertatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da Espainiako Ondare Historikoari buruzko 16/1985 Legean eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako prozedurei jarraitzea.

Gaikako estrategiak garatzen diren atalean, *Ingurumena, paisaia, ondare-aktiboak eta arriskuen kudeaketa* garatzen diren zatian eta zehazki *Paisaia eta ondare-kulturari* begirako proposamenetan, kulturaren ikuspegia materiala nagusitu dela iruditzen zaigu. Horregatik, ondasun-kultural inmaterialaren (lekuan lekuko ezagutzak, errituak, ohiturak, festak...) eta beren-beregi hizkuntzaren lanketa eta proposamenak jaso beharko lirateke.

Garapen jasangarria: kulturaren aldagaia.

Arestian egindako kultur ondare immaterialari buruzko oharrekin batera, beharrezko da, halaber —Nafarroako Lurralde estrategiaren lehen dokumentuan askotan aipatzen den heinean—, jasangarritasun kontzeptuaren —eta, ondorioz, garapen jasangarriaren— inguruko gogoeta zabalagoa egitea. Izan ere, kontzeptuaren hasieran (1987ko Brundtland txostena) garapen jasangarria hiru zutabetan bermatzen zela esan bazen ere —ekonomia, ingurumena eta

³ <https://ich.unesco.org/es/convenci%C3%B3n>

gizartea—, jada aipatutako UNESCOren 2003ko Ondare Immaterialaren Konbentzio garrantzitsuaz geroztik laugarren zutabe bat ere hartzen da kontuan: kultura. Bibliografia ugari dago gaiaren inguruan⁴, eta baita UNESCOren ebazpen eta adierazpen asko ere, hurrengo bi esaldietan laburbil daitezkeenak: «*Culture is who we are and what shapes our identity. No development can be sustainable without including culture*»⁵.

Horrez gain, NLE hainbatetan aipatzen diren Garapen Iraunkorrek Helburuei lotuta, Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedrak ondorengo ekarpena egina du:

17+1 Helburua: Hizkuntza eta kultura aniztasunaren bermea

[...] Doktrinak eta esperientziak behin eta berriro erakutsi dute hizkuntzak ekonomiaren motore direla, giza-kohesioaren eta bakearen bultzatzaile eta azken batean giza eskubide kontu bat, horregatik garapen iraunkorrek nahi eta nahi ez kontuan hartu behar ditu.

Badakigu munduko leku pobreenak eta desberdintasun handienak dituztenak aldaketa klimatikoaren eraginak ere gehien sentitzen dituzten lekuak direla eta horiek dira, hain zuzen ere, kultura eta hizkuntza aniztasun gehien dituzten gunek. [...]

Agendak adierazten duen moduan pobrezia bada mundu mailan daukagun arazorik larriena, ezingo diogu aurre egin modu egokian lekuan lekuko kultura eta hizkuntza berezitasunak kontuan hartzen ez baditugu. Horregatik, bakoitzak norberaren hizkuntzari ematen dion garrantzia aitortzea ezinbestekoa da pobrezia eta gosea eragozteko.

Hezkuntzaren alorrean, benetako heziketa inklusiboa lortzeko beharrezkoa izango da kultura eta hizkuntza propioen erabilera bultzatuko dituzten ereduak garatzea. Gainera, ume guztien aukerak bermatu behar ditugu hizkuntza nagusiak ikasteko formakuntza eta kanpo harremanen aukera berberak izan ditzaten. Beraz, beharrezkoa da gutxienez elebidunak diren ereduak garatzea. Hori izango da bidea eskolak kalitatezko hezkuntza lortzeko: munduari komunitatearen identitate kultural propioetik begirutzen diona, baina ezinbestez interkonektatua dagoen munduan integratzen dena.

Beraz, garapen jasangarrirako erreferentzia gisa NBEaren Garapen Iraunkorrerako Helburuak aipatzen diren modu berean, Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedraren 17+1

⁴ Ikus Dessen, J. et al, ed. (2015): *Culture in, for and as Sustainable Development. Conclusions from the COST Action IS1007 "Investigating Cultural Sustainability"*, University of Jyväskylä, Finlandia. [ISBN 978-951-39-6177-0].

⁵ «Kultura da gu nor garen eta gure nortasunari forma ematen diona. Ez dago garapen jasangarririk kultura kontuan hartu gabe»: <http://en.unesco.org/themes/culture-sustainable-development> (kontsulta: 2016/8/17).

helburua aintzat hartu beharko litzateke. Modu berean hartu beharko lirateke aintzat helburu hori garatzeko aipatutako dokumentuan jasotzen diren proposamenak ere.

Metabolismoa: hizkuntza-perspektiba

Aurreko guztiak oinarri hartuta, metabolismoaz hitz egiten denean, hizkuntza-perspektiba ere bertan jaso beharko litzatekeela uste dugu.

Hain zuzen ere, generoak atal horretan duen zeharkako tratamendu bertsua eskaini beharko litzaioke hizkuntzari ere. Horren adibide gisa, atal horretako generoari buruzko pasartea hizkuntza-perspektibaren arabera berridatzi ditugu, bertan hala jasotzea egokia izan daitekeelakoan:

30. jarraibidea (hizkuntza-perspektibaren arabera eraldatuta): Lurralde- eta hirigintza-antolamenduko tresnek kontuan hartuko dute hizkuntza-perspektiba beren jardun-eremuen diagnostikoan eta proposamenen definizioan, Nafarroako Euskararen Legeak eta Euskararen plan estrategikoko determinazioak kontuan hartuta.

4.- ARNASGUNEEN IZENDAPENA, AITORTZA, PREBENTZIOA ETA GARAPENA

Gutxitutako hizkuntzaren ikuspegia eta lurralde antolaketarena gurutzatzerakoan, ezinbestean mahai gaineratzen zaigun errealitatea edo fenomenoak da euskararen arnaguneena. Arnaguneak euskararen belauneko belauneko transmisioa bermatzen den, euskara normaltasunez erabiltzen den eta beraz, euskara hizkuntza-nagusia de eremu geografikoak dira: auzoak, herriak, eskualdeak... Baina, arnaguneen errealitatea ez da hor agortzen. Eremu geografikoez gain, badira, eremu erdaldunen baitan, arnagune soziofuntzional gisa kontsidera genitzakeen eremu funtzionalak: enpresak, ikastetxeak, elkarteak... Eremu horietan ere euskara da nagusi eta bertan euskararen erabileraren aldeko “arau-soziala” ezarria dago.

Soziolinguistikaren esparruan aski onartua eta zabaldua dago hizkuntza-gutxituen normalizazioari begira arnaguneek duten garrantzia eta horien potentziala. Izan ere, hizkuntza-gutxituen normalizazioaren adibide praktikoak eta bide erakusleak izateaz gain, bizindar soziolinguistiko handiko guneak izanik, normalizazio prozesuari bide ematen diona horien hedapena edo irradiazioa baita.

Izendapena eta aitortza

Beraz, ezer baino lehen, garrantzizko da arnagune horiek identifikatzea eta horien izendapena lantzea. Horretarako, EAeko Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan zein Udal Legearen garapen dekretuan jaso diren erreferentziaz baliagarri suerta daitezke. Hona dokumentu horietan arnaguneak zer nola definitzen diren:

EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan:

Arnasguneetan euskararen jakintza eta erabilera naturaltasunez eta intentsitate handiz sortzen diren tokiak dira, eta arnasguneak eremu geografikoak (hiriak, herriak, herrixkak, auzoak...) edo gune funtzionalak (lanerako, ikasteko, aisiarako eremuak) izan daitezke.⁶

179/2019 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa

«Arnasguneak»: eremu geografiko eta soziofuntzionalak zeinetan euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa baita, eta euskaraz aritzea ohikoa eta orokorra baita gizarte-harremanetan.

Azken erreferentzia horretan, bistan denez, arnasguneen definiziorako irizpide objektiboa jaso da (euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa) eta beraz operatibizatzeke errazagoa edo egokiagoa izan daiteke. Edozein kasutan, NLEren baitan udalerrri edo lurgune euskaldunak identifikatzea ezinbesteko iruditzen zaigu, ondotik, horiei begirako lurralde estrategia propioak garatu ahal izateko. Funtsean lur eremu horien zaintza eta garapen jasangarria sustatzea eta eremu berriak arnasgune izaera eskuratzea bultzatu beharko luke lurralde estrategia horrek. Bide horretan, *NLE berrirako eskualde-politika integralaren elementuak* biltzen dituen 12. jarraibidearen baitan jasotzen den ondorengo aipamena helduleku interesgarria izan daiteke:

Eremu zaugarriekiko diskriminazio positiboko jarduketak kontuan hartu behar dira eta eskualde osorako Lurraldearen Konpentsazio Funtsa eduki behar da. Horri dagokionez, “eremu objektiboak” zehaztu litezke, Europako Eskualde Politikakoen antzekoak, finantziario publikoko maila desberdinak izango lituzketenak, egoeraren larritasunaren arabera, bai eta sektore batzuk ere, non garapenerako pizgarriak ezartzen baitira, beren ahalmen endogenoa kontuan hartuta.

Horrela, aurrez esandako bidetik, hizkuntza-prespektibaren arabera Arnasguneen garrantziaz jabetuta, eta aldi berean, arnasguneen zaugarritasuna edo hauskortasuna (herri txikiak, hiriguneetatik urrun, landa eremukoak...) aintzat hartuta, udalerrri horiek NLEn aipatzen diren “eremu objektibotzat” aitortu daitezkeela uste dugu. Horrela, euskal lurgune bereziok babesteko, antolatzeke eta kudeatzeko araubide espezifikoa beharko litzateke.

Gainera, aintzat hartu beharko da arnasgune guztiak eskualde natural eta funtzional jakin batean (bioeskualdea zein Area Funtzional ofiziala) daudelako bilduta. Udalerrri euskaldunenetako biztanleek handiagoak eta erdaldunagoak izan ohi diren Area Funtzionaletako hiriburuetan egiten baitituzte eguneroko jarduera asko (lana, erosketa, aisialdia...), maila berezituagoko zerbitzu gehiago eskaintzen dituztelako. Hortaz, eskualde osoak hartu behar dira kontuan arnasguneetako dinamikak lantzerakoan. Aldi berean, arnasgune bilakatzetik hurbil egon

⁶ https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dots_nuevo/eu_def/adjuntos/DOT_Doc-completo.pdf

litezkeen eremuak, urrats hori eman dezaten, hizkuntza-politika intentsiboa garatzeko eremu gisa hartu beharko lirateke.

Prebentzioa: Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE)

Ingurumenaren alorrean egiten den moduan, prebentzioaren ikuspegitik, hizkuntzaren eremuan hirigintza-plan eta -proiektuen balizko kalte linguistikoak alde aurretik ebaluatu beharko lirateke, esan bezala, tokiko berezko hizkuntza babestea eta zabaltzea helburu izanda.


Bereziki lurralde mailako azpiegitura eta garapen urbanistiko ertain eta handien eragin linguistikoak aztertu beharko lirateke, eskualdeak fragmentatu eta ekosistema sozialak errotik aldatzen dituzten heinean. Baina horrez gain, aztertu beharko lirateke Nafarroarako egiten diren plan estrategikoek, eta tartean lurralde estrategiarako proposamenak zein eragin izango duen Nafarroako egoera soziolinguistikoan.

Horrela, arnaguneetako hizkuntza-dinamika hauskorak dislokatu ditzaketen hiri-garapenak, azpiegiturak, proiektuak edota planak mugatzeko aukera egon beharko litzateke, kalteak saihesteko neurri zuzentzaileak proposatuz, bai tamainari dagokionean bai denbora-epetegi dagokienean, 0-alternatiba ere —proiektua bertan behera uztea, behar izanez gero— baztertu gabe.

UEMAk dagoeneko eragin linguistikoaren ebaluatzeko tresna bat garatu dute, ELE izenekoa. ELEk hirigintza-plan eta -proiektuen eragin linguistikoak ahalik eta modu objektiboenean neurtzen ditu, gaika antolatutako (mugikortasuna, ekonomia, azpiegiturak, soziokultura eta demolinguistika) galdetegi zorrotz baten bidez.

Arnaguneen garapen jasangarria

Aurrez aipatu dugun bidetik, Arnaguneen garapen jasangarrirako estrategiak definitu beharra dagoela uste dugu. Garapen jasangarriaren paradigmatik abiatuz, 2018ko uztailean Gaindegiak, Kontseiluak, UEUK eta UEMAk lankidetzan *Arnaguneak: prebentziotik garapenera*⁷ proposamena osatu zuten. Bertan, arnaguneen garapen jasangarrirako, hiru ardatz eta zazpi erronka zehaztu ziren:



⁷ <https://kontseilua.eus/wp-content/uploads/2018/10/Arnaguneak-prebentziotik-garapenera.pdf>



Beraz, aipatutako proposamenen jasotzen denez, arnasmuneen garapena, garapen jasangarriaren ikuspegitik begiratu eta zeharkako estrategia gisa kokatu beharko litzateke NLen egiten diren proposamenetan.

Horrela, kontuan izan behar da helburua ez dela arnasmune-udalerrri eta -eskualdeen argazki estatiko ala finko bat lortzea. Gehiegi urbanizatzea oso kaltegarri izan daitekeen moduan, inolako garapenik gabe uzteak ere haien heriotza ekar lezakeelako. Horregatik, euskal hiztunentzako aldaketa soziolinguistiko kaltegarri gabeko arnasmuneen garapen orekatu eta endogenoa izan beharko litzateke azken helburua. Alegia, haiek zaintzeaz gain, haiek zabaltzeko ere jomuga duen epe motz, ertain eta luzerako estrategia (urbanistiko zein soziolinguistiko) argia planifikatzea eta martxan jartzea.

5.- BIBLIOGRAFIA NAGUSIA

- Hainbat egile (2014a): “Lurralde-antolaketa eta hizkuntza”, *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 90.
- Hainbat egile (2014b): *I. Jardunaldiak. Lurraldea & Hizkuntza. Hizkuntza & Lurraldea. Donostian, 2014ko urtarrilaren 16tik 17ra*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. [ISBN 978-84-7907-725-9].
<http://www.gipuzkoaeuskara.eus/documents/110040/286996/Lurraldea+eta+Hizkuntza+1/ace975ca-90a4-4d88-bc32-032a0b7e8ae2> (kontsulta: 2016/6/28).
- Hainbat egile (2015a): “Lurraldearen eta hizkuntzaren arteko loturak”, *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 95.
- Hainbat egile (2015b): *II. Jardunaldiak. Lurraldea & Hizkuntza. Erronkak & Tresnak. Donostian, 2015eko otsailaren 5etik 6ra*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia. [ISBN 978-84-7907-729-7].
http://www.gipuzkoaeuskara.eus/documents/110040/286996/lurraldea_eta_hizkuntza_2.pdf/1f87b856-99c5-4bca-a5f6-8f6b612527d7 (kontsulta: 2016/6/28).
- Hainbat egile (2018): *Arnasguneak: prebentziotik garapenera*
<https://kontseilua.eus/wp-content/uploads/2018/10/Arnasguneak-prebentziotik-garapenera.pdf>
- Irureta Azkune, O. (2015a): “Iñaki Iurrebaso. «Udalerrri euskaldunak gaur egun ez dira hain euskaldunak»”, *Argia*, maiatzaren 10a, 42-45.
- — (2015b): “Imanol Esnaola. «Udalerrri euskaldunak inguru hauskor bezala ikertu behar dira»”, *Argia*, maiatzaren 24a, 40-41.
- — (2015c): “Hirigintza planak eta euskara. Hizkuntza eragina neurtzeko tresna biribiltzen”, *Argia*, ekainaren 21a, 40-41.
- — (2016): “Aroztegia hirigintza proiektua. Nola eutsi euskaldun, 684 biztanle berri etorriko balira”, *Argia*, martxoaren 20a, 34-36.
- Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra. *17+1 Helburua: Hizkuntza eta kultura aniztasunaren bermea*
https://www.ehu.eus/documents/3120344/3356414/18+helb+argumentuak_eus.pdf/d86eb94b-ce03-1575-d1e9-d5a8d401e5e8?t=1519094736000
- Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (2019). *EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak LAG*
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dots_nuevo/eu_def/adjuntos/DOT_Doc-completo.pdf

Jose Manuel Zubillaga
Mugertza
Araizko Udala

Dabid Iturria Almandoz
Arantzako Udala

Francisco Javier Razkin Flores
Arbizuko Udala

Jose Otermin Etxarri
Aresoko Udala

Esther Lakasta Perez-Lizarbe
Basaburuko Udala

Joseba Xabier Otondo Bikondoa
Baztango Udala

Aitor Elexpuru Egaña
Berako Udala

Miguel Mari Irigoien
Sanzberro
Etxarlako Udala

Silvia Marañon Chasco
Etxarri Aranazko Udala

Unai Miranda Berroeta
Goizuetako Udala

Juankar Unanua Navarro
Igantziko Udala

Mikel Uharte Martija
Larraungo Udala

Mikel Zabaleta Aramendia
Leitzako Udala

Ladis Satrustegi Alzugarai
Lesakako Udala